



42/2023 EBAZPENA, ABENDUAREN 19KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LABORATEGIKO LAGUNTZAILEEN LANBIDE-KATEGORIAKO LAN-POLTSA SORTZEKO ETA LANGILEAK SARTZEKO DENA

---

2021eko urtarrilaren 7ko Agindua, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen du. Honen bidez ezartzen dira lan-poltsak eratzeko irizpideak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko irizpideak ere.

Agindu horren 1. artikuluan ezartzen denaren arabera, hori aplikatuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko kontratatu behar diren langileen hautaketari, baldin eta zerbitzu horiek eskakizun hauek betetzen badituzte:

- a) Zerbitzuak emateko bitarteko funtzionarioak izendatzea, funtzio publikoari buruzko legeria betez edo lan arloko legerian ezarritako iraupena duten lan-kontratuak eginez.
- b) Lan-baldintzak izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan diharduten langileei buruzko hitzarmenetan araututakoak, hau da, funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko hitzarmenean ezarritakoak edo lan-kontratuko kidegoentzako hitzarmenekoak.

Haren 3. artikuluan ezartzen denaren arabera, EAEko Administrazio Orokorraren kidego, aukera edo eskala eta lan-kategorien arabera eratuko dira lan-poltsak.

Osasun Sailean, Laborategiko Laguntzaile baten lanpostua betetzeko beharra sortu zen (titulazioa: Laborategiko Operazioetako Teknikaria edo baliokidea). Bada, lanpostu horren berezitasuna aintzat hartuta, eta kontuan izanda Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ez zegoela behar espezifiko horri erantzuten zion lan-poltsarik, 4.1. a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Kudeaketa berezia egin zen, Administrazio honetako lan-poltsetan dauden pertsonen artean.



Beraz, Laborategiko Laguntzailearen lanbide-kategoriako Laborategi Operazioetako Teknikariaren izendapena egin ondoren, titulazio horri dagokion lan-poltsa sortu behar da, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3.1 artikuluari jarraikiz. Eta, halaber, lan-poltsan sartu behar da Kidego horretako izendapen batekin zerbitzu horiek ematen ari den pertsona, esandako Agindu horren 4.1 a) artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Agindu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, egindako zerrenda argitara emango da Administrazioak informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen hedabide telematikoetan, lan-poltsai eta horien osaera eguneratuari buruzko informazioa eskuragarri egon dadin.

2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3.4. artikulua emandako eskumena baliatuz (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erabakia), hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengo artikulua.- LABORATEGIKO LAGUNTZAILEAREN lanbide-kategoriako lan-poltsa sortzea. Era berean, langileak bertan sartzea, Ebazpen onen Eranskinean jasotzen denari jarraituz.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera ([www.euskadi.net/lanpoltsak](http://www.euskadi.net/lanpoltsak)).

Bigarrena.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek ([www.euskadi.net/lanpoltsak](http://www.euskadi.net/lanpoltsak)).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 20a

  
GOBIERNO VASCO  
GOVERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Departamento de Gobernantza  
GOVERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA  
Viceconsejera de  
José María Armentia Macazaga

## ERANSKINA

Lehen oinarria.- Eratutako poltsa.

LABORATEGIKO LAGUNTZAILEAREN lanbide-kategoriako lan-poltsa eratu da.

Bigarren oinarria.- Lan-poltsak osatuko dituzten langileak.

Amaia Arribas Merino sartu da lan-poltsan.

Hirugarren oinarria.- Hurrenkera eta puntuazioa.

Lan-poltsan sartu den pertsona horrek hurrenkeran 1 zenbakia du eta 0 puntu.

Laugarren oinarria.- Arautzea.

Lan-poltsa 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez arautuko da. Agindu hori, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen du, eta 2021eko urtarrilaren 25ean argitaratu zen.

Bosgarren oinarria.- Datu pertsonalen fitxategia.

1.- Lan-poltsa osatzen duen langileari buruzko informazio guztia fitxategi batean sartuko da, zeina bakar-bakarrrik erabiliko baita langileak aldi baterako kontratatzeko nahiz bitarteko funtzionarioak izendatzeko eratzen diren lan-poltsak kudeatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz indarrean dauden erabakien bidez arautuko dira lan-poltsa horiek. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bi lege hauetan ezarritakoaren arabera izango da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta 2/2004 Legea, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

2.- Fitxategiaren arduraduna Funtzio Publikoko Zuzendaritza da, eta datuetarako sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko, Funtzio Publikoko zuzendariarengana jo beharko da (Donostia-San Sebastián kalea,1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).



Seigarren oinarria. Argitalpena.

1.- Jarraian adierazten diren helbide elektronikoetan argitaratuko dira bai lanpoltsa bai hura osatzen dutenen zerrenda.

[www.euskadi.eus/lanpoltsak](http://www.euskadi.eus/lanpoltsak)

[www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)

2.- Helbide elektroniko horiek iragarki-taula gisa erabiliko dira, informazioa eman eta kontsultak egin ahal izateko.